


# Konpetentzia digitalak lantzen

Egunerokoan beharrezkoak ditugun tresna digitalak ulertzeko eta erabiltzeko formakuntzak.



## Egunerokorako segurtasuna sarean eta mugikorrean

Azaroak 2 / 16:30-18:00 / Don Bosco

Gailu digitalaren segurtasunarekin zerikusia duten gaietan interesa dutenei zuzendutako tailerra. Pasahitzak sortu eta kudeatzeko tresnak aurkeztuko dira eta, horrekin batera, gure gailuak iruzurretatik babesteko gomendioak emango dira, egunerokoan topatu ditzakegun adibideekin. Bukatzeko, mugikorrek seguru mantentzeko oinarrizko jarraibideak eskainiko dira.

## Euskarazko baliabideak sarean

Azaroak 9 / 16:30-18:00 / Don Bosco

Mundu digitalean euskarazko edukiak eta baliabideak zeintzuk diren ezagutu nahi dituzten pertsoneri zuzendutako tailerra da. Saioan zehar, formatu desberdinetako edukiak non topa daitezken ikusiko eta zein motatako edukiak eskaintzen diren aztertuko da. Bestalde, aisialdiarekin lotuta euskarazko jokoak ikusiko ditugu.

## Izena eman telefonoz edo QR kodea eskaneatuz

info@talaios.coop  
**943510450**



<https://labur.eus/formul>

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta Europako Batasunak - NextGenerationEU finantzaturako jarduera, Trebakuntza Digitaleko Zentro Nazionalen Sare Planeko 19. osagaiaren barruan (1. inbertsioa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

## Eguneroko tramiteak online (osakidetza, bizitza laborala, udala)

Azaroak 16 / 16:30-18:00 / Don Bosco

Zerbitzu publikoek online tramiteak egiteko eskaintzen dituzten aukerak ezagutu eta horiek nola egin daitezkeen ikasi nahi dutenei bideratutako tailerra da. BakQ nola lortu daitekeen landuko da eta horrek zein aukera ematen dituen aztertuko da. Osakidetzarekin lotutako eskaerak eta dokumentuak, bizitza laborala eta udaletxetako online zerbitzuak erakutsiko dira.

## Eduki digitalak sortzen: Canva

Azaroak 28 / 16:30-18:00 / Don Bosco

Eduki digitalak sortzen ikasteko tailerra. Modu errazean eduki eta material digital ikusgarriak sortzeko oinarrizko ezagutzak landuko dira. Horretarako, Canva plataforma erabiliko da. Plataforma honek aukera ematen du erakargarriak diren aurkezpenak, kartelak edota marrazkiak egiteko.

## Adimen Artifiziala erabiltzen hasteko tresnak

Azaroak 23 / 18:00-19:30 / Merkatuzar

Adimen Artifiziala zer den ezagutzeko oinarrizko ezagutzak landuko dira. Egunerokoan tresna hau nola erabili daitekeen ikusiko da, hainbat adibiderek, eta nola funtzionatzen duten aztertuko da. Egoera honetan, euskarak zein leku duen hausnartuko da eta, bukatzeko, jarduera erraz baten bitartez, euskara tresna digital hauetan sustatzeko tarte hartuko dugu.